Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko abenduaren 23a, asteazkena — 245 — Miércoles, a 23 de diciembre de 2020

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*32/2020 Foru Dekretua, abenduaren 22koa, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten duena.*

Berriki onetsi den azaroaren 6ko 3/2020 Foru Arauak, iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duenak, berekin ekarri du gauzatzea zerga ihesa eta iruzur fiskala galarazi eta detektatze aldera Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) konponbide teknologiko eraginkorrak ezartzeko egin dituen gomendioak. Zehazki, hizpide dugun iruzur fiskala da diru sarrera gutxiago aitortzea salmenta elektronikoak ezabatzen direnean, eta gastu handiagoak aitortzea faktura faltsuak erabiltzen direnean.

Era berean, aipatutako araua onartzean Gipuzkoak pausu kualitatibo bat eman du Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Batzordeak landutako estrategia komuna ezartzeko garaian, sektore jakin batzuetan fakturazio sistemak kontrolatzeko tresnen ezarpena aztertzea ahalbidetzen duen heinean.

Zerga iruzurra eragoztea helburu duten tresna teknologikoak erabiltzeko obligazioa dela medio –sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauak aldatuz ezarri da obligazio hori onartutako foru arau horretan–, zergadunak behartuta geratzen dira fakturazio sistemetan neurri teknologiko aurreratuak erabiltzera tresna teknologiko berriak baliatuta, eta horrek ahalbidetuko du jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen eta pertsona juridikoen tributazioa kontrolatzea, haien tamaina edo eragiketa bolumena edozein dela ere.

Bere artikuluetan zehar, foru arauak hainbat gai uzten ditu erregelamenduz garatzeko, eta horrexek egiten du beharrezko foru dekretu hau onartzea.

Hortaz, foru dekretu honen xedea da zerga iruzurra eragoztea helburu duten lanabes teknologikoak erabiltzeko betebeharra garatzea, betebehar horren erregulazioa osatuko duen erregelamendu bat onartuz.

Erregelamenduari «TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua» deitu zaio modu laburtuan, eta arrazoia da izen horrekin sinplifikatu nahi izan dela nola izendatu behar den ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatuko dituen sistema informatiko bat erabiltzeko betebeharra. Hortaz, betebehar horri TicketBAI betebeharra deituko zaio erregelamendu honen ondorioetarako, baita gainerako zerga araudiaren ondorioetarako ere.

Erregelamenduak zazpi kapitulu ditu, hogeita hiru artikulu, bi xedapen gehigarri eta azken xedapen bat.

Atariko kapituluak xedapen orokorrak biltzen ditu, hiru artikulutan garatuak, eta horietan gai hauek arautzen dira: xedea,

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Decreto Foral 32/2020, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI.*

La reciente aprobación de la Norma Foral 3/2020, de 6 de noviembre, por la que se establece la obligación de utilizar herramientas tecnológicas para evitar el fraude fiscal, ha supuesto la materialización de las recomendaciones de la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico (OCDE) de implementar soluciones tecnológicas efectivas para evitar y detectar la evasión y fraude fiscal. En particular, el consistente en una declaración inferior de ingresos mediante la supresión de ventas electrónicas y una declaración superior de gastos mediante la utilización de facturas falsas.

Asimismo, dicha aprobación conlleva un avance cualitativo en Gipuzkoa, en la implementación de la estrategia común elaborada por la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal en el País Vasco que permita analizar la implantación de herramientas de control de los sistemas de facturación en determinados sectores de actividad.

Con la implantación de la obligación de utilizar herramientas tecnológicas para evitar el fraude fiscal aprobada por la referida norma foral, se establece, mediante la modificación de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de no Residentes y la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, la obligatoriedad del uso de medidas tecnológicas avanzadas por parte de los contribuyentes a través de nuevos instrumentos tecnológicos en los sistemas de facturación, lo que permitirá el control de la tributación de las personas físicas que desarrollan actividades económicas y de las personas jurídicas, con independencia de su tamaño o volumen.

La norma foral remite a lo largo de su articulado diversas cuestiones a un posterior desarrollo reglamentario, lo que hace que sea precisa la aprobación del presente decreto foral.

El presente decreto foral tiene, por tanto, la finalidad de acometer el desarrollo reglamentario de la obligación de utilizar herramientas tecnológicas para evitar el fraude fiscal, mediante la aprobación de un reglamento que complementa la regulación de dicha obligación.

Este reglamento se denomina «Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI», y ello porque se ha simplificado, a través de la utilización de este nombre, la forma de denominar la obligación de utilizar un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios. Por tanto, esta obligación se denominará obligación TicketBAI a efectos de este reglamento, así como del resto de la normativa tributaria.

El reglamento consta de siete capítulos, veintitrés artículos, dos disposiciones adicionales y una disposición final.

El capítulo preliminar contiene las disposiciones generales, desarrolladas en tres artículos que regulan el objeto, el ámbito

EK\CV GAO-I-2020-06951

aplikazio eremua, eta, erregelamendu honen ondorioetarako, eta hura garatzen duen araudiaren ondorioetarako ere, hainbat terminoren esanahia zehazten duten definizioak eta erreferentziak.

I. kapituluak, hiru artikuluz osatuak, betebeharraren aplikazio eremuaren mugak ezartzen ditu. Horrela, zehazten du zein kasutan dauden zergadunak TicketBAI betebeharretik salbuetsita. Orobat, salbuespen partzial bat arautzen du, eragiketaren fakturan edo frogagirian QR kodea jartzeko betebeharretik salbuesten duena.

II. kapituluak bi artikulu biltzen ditu, eta bertan TicketBAI betebeharraren konplimenduaz jarduten du, bi gai hauek garatuz: betebeharra betetzeko gaituta dauden pertsonak, eta betebeharra betetzeko erabili daitezkeen baliabide informatikoak.

III. kapitulua bost ataletan banatuta dago, eta bederatzi artikulu ditu. Horietan zehar arautzen da zer beharkizun izan behar dituen erabiltzen den sistema informatikoak –TicketBAI softwarea izenekoak– ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategi informatikoen osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko.

Hala, aurrenik ezartzen da TicketBAI softwarearen baldintzak zein ordenatan bete behar diren, eta hiru ekintza bereizten dira: fitxategiaren sorrera, fitxategiaren igorpena, eta fakturan edo frogagirian TicketBAI kodea eta QR kodea txertatzea.

Horren ondoren, TicketBAI fitxategien sorrera garatzen da, eta halakotzat hartzen dira bai altako fitxategiak bai eragiketak baliogabetzekoak. Horrela, bertan ezartzen da eragiketaren faktura edo frogagiria egin baino lehen, TicketBAI softwareak TicketBAI altako fitxategi bat sortu behar duela ondasun entrega edo zerbitzu prestazio bakoitzeko. Orobat, zehazten da alta emateko zein eragiketak baliogabetzeko fitxategiek izan behar duten informazioa, eta fitxategi horiek elektronikoki sinatu behar direla ere ezartzen da.

Hirugarrenik, TicketBAI fitxategiak Zerga Administrazioari nola bidali behar zaizkion arautzen da. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da fitxategia bidaltzeko unea, eragiketaren faktura edo frogagiria egiten den une berean bidali behar baita. Argi utzi behar da aldiberekotasun hori pertsonak edo entitateak faktura edo frogagiria egiten duen unearekiko ulertzen dela, ez pertsona edo entitate hartzaileari hura bidaltzen edo entregatzen zaion unearekiko.

Aurrerago, ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten faktura edo frogagirietan TicketBAI kode bat eta QR kode bat sartzea garatzen da.

Bukatzeko, ezartzen da nola jokatu behar den TicketBAI betebeharra betetzeko garaian gorabehera teknikoak eragin ditzaketen kasu berezietan.

IV. kapituluak artikulu bakarra du, eta haren barruan arautzen da zergadunak TicketBai softwarearekin egindako eragiketen alta eta baliogabetze fitxategiak gordetzera behartuta daudela zergen foru arau orokorrak betebehar formalei dagokienez aurreikusten duen epean.

V. kapituluak bi artikulu ditu, eta horietan zehazten da TicketBAI betebeharraren konplimenduaren egiaztapena bai hartzailearen aldetik, horretarako eskura jarriko zaion aplikazio informatikoaren bitartez, bai Zerga Administrazioaren aldetik ere, hala badagokio.

VI. kapitulua hiru artikuluk osatzen dute, eta bertan TicketBAI Softwarearen Erregistroa arautzen da, bertan inskribatzeko baldintzak ezartzeaz gainera. Horretarako, aurreikusten da alta aitorpen bat aurkeztea, eskuragarri izango den formularioa erabilita, eta hari erantzukizunpeko deklarazio bat eranstea, softwarea garatzen duen pertsonak edo entitateak sinatu behar duena.

de aplicación y las definiciones y referencias en las que se concreta el significado que tendrán determinados términos a efectos del presente reglamento, así como de su normativa de desarrollo.

El capítulo I, que contiene tres artículos, establece los límites al ámbito de aplicación de la obligación. De este modo incluye la exoneración del cumplimiento de la obligación TicketBAI para determinados supuestos. Asimismo, regula una exoneración parcial, consistente en la no necesidad de incluir el código QR en la factura o justificante de la operación.

El capítulo II, con dos artículos, se refiere al cumplimiento de la obligación TicketBAI, desarrollando lo relativo a las personas habilitadas para su cumplimiento y los recursos informáticos que se podrán utilizar a tal efecto.

El capítulo III, dividido en cinco secciones que incluyen nueve artículos, comprende la regulación de los requisitos que debe cumplir el sistema informático que garantiza la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros informáticos que documentan las entregas de bienes y prestaciones de servicios, denominado software TicketBAI.

Así, en primer lugar, se incluye el orden en que deben de cumplirse los requisitos del software TicketBAI, distinguiendo la generación del fichero, el envío del mismo, y la inclusión del código TicketBAI y el código QR en la factura o justificante.

A continuación, se desarrolla la generación de los ficheros TicketBAI, entendiendo por tales tanto los ficheros de alta como los de anulación. Así, establece que el software TicketBAI deberá generar un fichero de alta TicketBAI por cada entrega de bienes o prestación de servicios, con carácter previo a la expedición de la factura o justificante. Cabe destacar la determinación de la información que deberán contener los ficheros de alta y de anulación, así como el hecho de que estos ficheros deberán ser firmados electrónicamente.

En tercer lugar, se regula el envío de los ficheros TicketBAI a la Administración tributaria. A este respecto, hay que resaltar el momento del envío del fichero, que ha de ser simultáneo a la expedición de la factura o justificante de la operación. Cabe remarcar que la simultaneidad es al momento de la expedición de la factura o justificante por parte de la persona o entidad emisora, no al de su remisión o entrega a la persona o entidad destinataria.

Posteriormente se desarrolla la inclusión de un código TicketBAI y un código QR en las facturas o justificantes que documenten las entregas de bienes o las prestaciones de servicios.

Finalmente, se articula el modo en que ha de procederse en determinados supuestos excepcionales que pueden dar lugar a incidencias de carácter técnico en el cumplimiento de la obligación TicketBAI.

El capítulo IV, contiene un solo artículo que regula la obligación de conservación, por parte de los contribuyentes, de los ficheros de alta y de anulación de operaciones con software TicketBAI en el plazo previsto por la Norma Foral General Tributaria en relación con las obligaciones formales.

El capítulo V, que consta de dos artículos, comprende la verificación del cumplimiento de la obligación TicketBAI, tanto por parte de la persona o entidad destinataria a través de la aplicación informática que al efecto se ponga a su disposición, como por parte de la Administración tributaria, en su caso.

El capítulo VI, que contiene tres artículos, regula el Registro de Software TicketBAI y determina los requisitos que deben cumplirse para inscribirse en el mismo. Para ello, se prevé la presentación de una declaración de alta, mediante la cumplimentación del formulario que al efecto se ponga a disposición y que incluirá una declaración responsable a suscribir por la persona o entidad desarrolladora del software.

EK\CV GAO-I-2020-06951

Orobat, prozedura bat arautzen da erabilitako softwareak TicketBAI Softwarearen Erregistrotik baztertzeko, zeinaren bukaeran softwarea erregistrotik kanpo gera baitaiteke ez-betetzea prozeduran zehar zuzendu ez bada.

Erregelamenduak bi xedapen gehigarri ditu: lehenengoak TicketBAI altako fitxategiaren edukiari buruzko berezitasunak ezartzen ditu faktura sinplifikatuak egiten diren kasuetarako; bigarrenak, berriz, bidaia agentziek berezkoa duten berezitasun bat jasotzen du.

Erregelamenduaren azken xedapen bakarrean arauak emateko ahalmena jasotzen da, nahiz eta bere artikuluetan zehar Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari gaikuntza ugari egiten zaizkion, garatzen diren gaiak oso teknikoak direlako, esate baterako, TicketBAI softwareak eta fitxategiek bete behar dituzten zehaztapen tekniko eta funtzionalak, eta izaera bereko beste batzuk.

Bestalde, foru dekretuak artikulu bakarra, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bakarra eta azken lau xedapen ditu.

Lehen eta bigarren xedapen gehigarriek ahalbidetzen dute TicketBAI betebeharra borondatez betetzea 2021eko urtarrilaren 1etik ezarpen egutegiaren arabera hura nahitaez bete beharrekoa izan arte.

Xedapen iragankor bakarrak TicketBAI betebeharra ezartzeko egutegia finkatzen du, eta, haren arabera, zergadunak 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 1era bitartean egongo dira behartuta TicketBAI betebeharra betetzera, nahiz eta datak aldatu egiten diren egiten duten jarduera zein epigrafetan dagoen. Era berean, argitzen da jarduera bat baino gehiago eginez gero, TicketBAI betebeharra horietako bati dagokionez ezartzeak gainerako jarduerentzat ere derrigortzen duela.

Azken xedapenei dagokienez, bertan hiru erregelamendu aldatzen dira, eta bai foru dekretua eta bai erantsitako erregelamendua indarrean noiz jarriko diren ezartzen da.

Hiru erregelamendu hauek aldatzen dira: fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua, otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia; zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia; eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Fakturazio obligazioak arautzen dituen erregelamenduko aldaketei dagokienez, nabarmentzen da eragiketen frogagiria egiteko betebeharra ezartzen dela pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ondorioetarako fakturarik egitera behartzen ez duten eragiketa jakin batzuengatik.

Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduko aldaketari dagokionez, alde batetik, zerga errolda berri bat gehitzen da: TicketBAI Softwarearen Erregistroa. Bestetik, ezinbestezkoa den aldaketa bat sartzen da fakturazio erregistroen hornidura elektronikoaren bidez, hau da, berehalako informazio horniduraren bidez (BIH) balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez bidaltzen diren erregistro liburuen edukia egokitzeko. Izan ere, ezarrita uzten da TicketBAI betebeharra betez Zerga Administrazioari igortzen zaion informazioa baliagarria izango dela BIHren faktura liburuetarako ere, eta horrek ez duela galaraziko betebehar horren ondorioz igorri behar den informazio gehigarria bidaltzea, TicketBAI fitxategian jasotakoaz aparte. Dena den, aukera hori juridikoki eta teknikoki garatzen ez den bitartean, nahitaezkoa izango da informazio guztia ematen jarraitzea.

Asimismo, se regula un procedimiento de exclusión del Registro de Software TicketBAI, que podrá finalizar con la exclusión del software del registro cuando el incumplimiento no se haya subsanado en el curso del mismo.

El reglamento contiene dos disposiciones adicionales: la primera de ellas establece especialidades en relación al contenido del fichero de alta TicketBAI para los supuestos en los que se expidan facturas simplificadas; la segunda, por su parte, recoge una especialidad propia de las agencias de viajes.

La disposición final única del reglamento recoge la habilitación normativa, si bien a lo largo de su articulado ya se realizan numerosas habilitaciones al diputado o la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, debido al carácter extremadamente técnico de la materia objeto de desarrollo, a saber, las especificaciones técnicas y funcionales que deben cumplir el software y los ficheros TicketBAI, entre otra serie de cuestiones de naturaleza similar.

Por su parte, el decreto foral consta, a su vez, de un único artículo, dos disposiciones adicionales, una única disposición transitoria y cuatro disposiciones finales.

En cuanto a las disposiciones adicionales primera y segunda, permiten optar por el cumplimiento de la obligación TicketBAI de forma voluntaria desde el 1 de enero de 2021 hasta que la misma resulte de obligado cumplimiento de acuerdo con el calendario de implantación.

La disposición transitoria única establece el calendario de implantación de la obligación TicketBAI, según el cual los contribuyentes deberán cumplir con la obligación TicketBAI entre el 1 de enero y el 1 de diciembre de 2022, en función del epígrafe en que se comprenda la actividad que ejerzan. Asimismo, se clarifica que en el supuesto de que se ejerzan varias actividades, la exigibilidad del cumplimiento de la obligación TicketBAI con respecto a una de ellas conlleva la obligación para el resto de las actividades.

Por lo que a las disposiciones finales se refiere, contienen la modificación de tres reglamentos, y la entrada en vigor del decreto foral y del reglamento anexo.

Los reglamentos que se modifican son: el Reglamento que regula las obligaciones de facturación, aprobado por Decreto Foral 8/2013, de 26 de febrero; el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre; y el Reglamento de gestión tributaria y de desarrollo de las normas comunes sobre actuaciones y procedimientos tributarios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 5/2020, de 21 de abril.

En cuanto a las modificaciones del Reglamento que regula las obligaciones de facturación destaca la obligatoriedad de expedir justificante por determinadas operaciones por las que no se expida factura a efectos del impuesto sobre la renta de las personas físicas, del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes con establecimiento permanente.

En relación a la modificación del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, por un lado, se añade un nuevo censo tributario: el Registro de Software TicketBAI. Por otro lado, se introduce un cambio indispensable para ajustar el contenido de los libros registro correspondientes al impuesto sobre el valor añadido mediante el suministro electrónico de los registros de facturación, es decir, a través del sistema basado en el suministro inmediato de información (SII), al establecer que la información enviada a la Administración tributaria en cumplimiento de la obligación TicketBAI servirá de cara al libro de facturas expedidas del SII, sin perjuicio de que cuando en virtud de esta obligación deba suministrarse información adicional a la contenida en el fichero TicketBAI enviado deberá suministrarse la información adicional que, en su caso, proceda. No obstante, en tanto esta posibilidad no se desarrolle jurídica y técnicamente, resultará obligatorio seguir suministrando la totalidad de la información.

EK\CV GAO-I-2020-06951

Azkenik, ezartzen da foru dekretua eta erantsitako erregelamendua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den egunean bertan jarriko direla indarrean, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, xedapen gehigarrietan jasotakoa eragotzi gabe.

Urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, eta urtarrilaren 17ko 2/2014ko Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, azken xedapenetako bigarrenean esaten dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak behar diren xedapen guztiak eman ditzaketela foru arau horiek garatu eta exekutatzeko.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onestea.*

Onetsita geratzen da TicketBai betebeharra garatzen duen Erregelamendua, foru dekretu honetan eranskin gisa jasotzen dena.

*Lehen xedapen gehigarria. TicketBAI betebeharra borondatez betetzea 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.*

1. Zergadunek 2021eko urtarrilaren 1etik xedapen iragankor bakarrean xedatutakoaren arabera nahitaez bete beharrekoa izan arte bete ahal izango dute beren borondatez TicketBAI betebeharra. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, aukera hori ezeztaezina izango da.

2. TicketBai fitxategikoa ez den informazio osagarria, hain zuzen ere, zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 36.5 artikuluko laugarren paragrafoan aipatua, nola eman behar den garatzen ez den bitartean, erregistro liburuak egoitza elektronikoaren bidez eramatera behartuta dauden zergadunek (5. paragrafo horretan aurreikusitakoaren arabera) oso-osorik jarraitu beharko dute betetzen betebehar hori.

*Bigarren xedapen gehigarria. TicketBAI Softwarearen Erregistroa abian jartzea 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen.*

Lehen xedapen gehigarrian aipatzen den TicketBAI betebeharra zergadunek beren borondatez bete ahal izan dezaten, TicketBAI Softwarearen Erregistroa abian jarriko da erregelamendu hau indarrean jartzen den egunean.

Horretarako, data horretatik aurrera, erregelamendu honen VI. kapituluan xedatutakoa aplikatuko da.

*Xedapen iragankor bakarra. TicketBAI betebeharra ezartzeko egutegia.*

1. Zergadunak TicketBai sistema erabiltzera behartuta egongo dira, kontuan hartuta zer jarduera enpresarial, profesional edo artistiko egiten duten apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileaz onartutako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateginaren arabera, ezarpen egutegi honi jarraituz:

a) 2022ko urtarrilaren 1ean, hauek egongo dira behartuta:

— Zerga arloko Kudeaketa zerbitzuak ohikotasunez egiten dituztenak, azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduaren 9. artikuluan aipatuak.

— Lehen xedapen gehigarriaren indarrez 2021ean TicketBAI betebeharra borondatez betetzea aukeratu ondoren, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera betebehar hori betetzen jarraitzen dutenak.

Finalmente, se establece la entrada en vigor del decreto foral y el reglamento anexo, en el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, con efectos a partir del 1 de enero de 2022, sin perjuicio de lo previsto en las disposiciones adicionales.

Las disposiciones finales segundas de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, habilitan a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a la diputada o al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución de las citadas normas forales.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

*Artículo único. Aprobación del Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI.*

Se aprueba el Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI, que se incorpora como anexo al presente decreto foral.

*Disposición adicional primera. Cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI a partir del 1 de enero de 2021.*

1. Los contribuyentes podrán optar por cumplir voluntariamente la obligación TicketBAI desde el 1 de enero de 2021 hasta que les resulte de obligado cumplimiento en virtud de lo dispuesto en la disposición transitoria única. A partir del 1 de enero de 2022 esta opción será irrevocable.

2. En tanto no se desarrolle la forma en la que debe suministrarse la información adicional a la contenida en el fichero TicketBAI, a que se refiere el párrafo cuarto del artículo 36.5 del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, los contribuyentes que tengan la obligación de llevar los libros registro a través de la sede electrónica, prevista en dicho apartado 5, deberán seguir cumpliendo la misma en su integridad.

*Disposición adicional segunda. Entrada en funcionamiento del Registro de Software TicketBAI con anterioridad al 1 de enero de 2022.*

Con el fin de que los contribuyentes puedan proceder al cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI a que se refiere la disposición adicional primera, el Registro de Software TicketBAI entrará en funcionamiento el día en que entre en vigor este reglamento.

A tal efecto, a partir de dicha fecha resultará de aplicación lo dispuesto en el capítulo VI de este reglamento.

*Disposición transitoria única. Calendario de implantación de la obligación TicketBAI.*

1. La obligación TicketBAI será exigible para los contribuyentes en función de la actividad empresarial, profesional o artística que ejerzan, de acuerdo con lo dispuesto en el Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas aprobado por el Decreto Foral Normativo 1/1993 de 20 de abril, con arreglo al siguiente calendario de implantación:

a) El 1 de enero de 2022, será exigible para los siguientes contribuyentes:

— Los que prestan con habitualidad servicios de gestión en materia tributaria, a los que se refiere el artículo 9 de la Orden Foral 582/2014, de 5 de noviembre.

— Los que, habiendo optado por cumplir voluntariamente la obligación TicketBAI en 2021 en virtud de la disposición adicional primera, sigan cumpliendo la misma a partir del 1 de enero de 2022.

b) 2022ko martxoaren 1ean, epigrafe hauetako jarduerak egiten dituztenak egongo dira behartuta:

— 1. sekzioan, 834. eta 849. talde bitartekoak.

— 2. sekzioan, 011. eta 841. talde bitartekoak.

c) 2022ko maiatzaren 1ean, epigrafe hauetako jarduerak egiten dituztenak egongo dira behartuta:

— 1. sekzioan, 641. eta 665. talde bitartekoak eta 671. eta 687. talde bitartekoak.

— 2. sekzioan, 851. eta 899. talde bitartekoak.

d) 2022ko urriaren 1ean, epigrafe hauetako jarduerak egiten dituztenak egongo dira behartuta:

— 1. sekzioan, 501. eta 508. talde bitartekoak; 691. eta 757. talde bitartekoak; 833. taldea; eta 851. eta 999. talde bitartekoak.

e) 2022ko abenduaren 1ean, epigrafe hauetako jarduerak egiten dituztenak egongo dira behartuta:

— 1. sekzioan, 011. eta 495. talde bitartekoak; 611. eta 631. talde bitartekoak; eta 761. eta 832. talde bitartekoak.

— 3. sekzioan, 011. eta 059. talde bitartekoak.

f) Lehen xedapen gehigarriaren indarrez TicketBAI betebeharra borondatez betetzea aukeratzen den datatik aurrera, betiere hautu hori 2022an egiten bada.

2. Jarduera bat baino gehiago egiten dituzten zergadunen kasuan, baldin eta jarduera horiek bi epigrafetan edo gehiagotan sartuta badaude eta horiei data desberdin bat ezarri bazaie, TicketBAI betebeharra jarduera guztietarako exijituko da lehenengo jarduerarako ezarri denean.

3. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak xedapen iragankor honetan aurreikusitako egutegia aldatu ahal izango du foru agindu bidez.

*Azken xedapenetako lehena. Fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua aldatzea.*

Aldaketa hauek sartzen dira fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamenduan, otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoan:

Bat. 6. artikuluaren 1. apartatuko a) letrari 6. ordinala gehitzen zaio, honako hau dioena:

«6. TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 17. artikuluan jasotakoaren arabera egindakoak.»

Bi. 14. artikuluaren 2. apartatuari c) letra gehitzen zaio, eta honela dio:

«c) TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 17. artikuluan aipatzen dituen kasuetan.»

Hiru. Azken paragrafo bat gehitzen zaio 26.1 artikuluari, honela dioena:

«Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak behartuta egongo dira, erregelamendu honetako 1. artikuluan jasotakoarekin bat, frogagiria eta kopia egitera, eragiketengatik fakturarik egin behar ez denean erregelamendu honen 3.1 artikuluko a) eta d) letretan aurreikusitakoaren arabera.»

b) El 1 de marzo de 2022, será exigible para los contribuyentes que ejerzan las actividades comprendidas en los siguientes epígrafes:

— En la sección 1, los comprendidos entre los grupos 834 y el 849.

— En la sección 2, los comprendidos entre los grupos 011 y el 841.

c) El 1 de mayo de 2022, será exigible para los contribuyentes que ejerzan las actividades comprendidas en los siguientes epígrafes:

— En la sección 1, los comprendidos entre los grupos 641 y el 665 y entre los grupos 671 y el 687.

— En la sección 2, los comprendidos entre los grupos 851 y el 899.

d) El 1 de octubre de 2022, será exigible para los contribuyentes que ejerzan las actividades comprendidas en los siguientes epígrafes:

— En la sección 1, los comprendidos entre los grupos 501 y el 508; entre los grupos 691 y el 757; el grupo 833; y entre los grupos 851 y el 999.

e) El 1 de diciembre de 2022, será exigible para los contribuyentes que ejerzan las actividades comprendidas en los siguientes epígrafes:

— En la sección 1, los comprendidos entre los grupos 011 y el 495; entre los grupos 611 y el 631; y entre los grupos 761 y el 832.

— En la sección 3, los comprendidos entre los grupos 011 y el 059.

f) Desde la fecha en que se opte de forma voluntaria por el cumplimiento de la obligación TicketBAI en virtud de lo dispuesto en la disposición adicional primera, siempre que dicha opción se ejercite en 2022.

2. En caso de contribuyentes que ejerzan varias actividades y estas estén encuadradas en dos o más epígrafes que a su vez tengan una fecha de exigibilidad diferente, la obligación TicketBAI será exigible para todas ellas cuando lo sea para la primera de las actividades.

3. El diputado o la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, mediante orden foral, podrá modificar el calendario previsto en esta disposición transitoria.

*Disposición final primera. Modificación del Reglamento que regula las obligaciones de facturación.*

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento que regula las obligaciones de facturación, aprobado por el Decreto Foral 8/2013, de 26 de febrero:

Uno. Se añade un ordinal 6.º en la letra a) del apartado 1 del artículo 6, con el siguiente contenido:

«6.º Las que se expidan conforme a lo previsto en el artículo 17 del Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI, aprobado por el Decreto Foral 32/2020, de 22 de diciembre.»

Dos. Se añade una letra c) al apartado 2 del artículo 14, con el siguiente contenido:

«c) En los supuestos a que se refiere el artículo 17 del Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI, aprobado por el Decreto Foral 32/2020, de 22 de diciembre.»

Tres. Se añade un último párrafo al artículo 26.1, con el siguiente contenido:

«Los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas estarán obligados, con arreglo a lo previsto en el artículo 1 de este reglamento, a expedir justificante y copia de este por las operaciones por las que no se expida factura en virtud de lo previsto en las letras a) y d) del artículo 3.1 de este reglamento.»


EK\CV GAO-I-2020-06951

Lau. 27. artikulua gehitzen da, honela dioena:

«27. artikulua. Eragiketak sozietateen gaineko zergan dokumentatu beharra.

Zerga honen zergadunak behartuta egongo dira, erregelamendu honetako 1. artikuluan jasotakoarekin bat, frogagiria eta kopia egitera, eragiketengatik fakturarik egin behar ez denean erregelamendu honen 3.1 artikuluko a) eta d) letretan aurreikusitakoaren arabera.»

Bost. 28. artikulua gehitzen da, eta honela dio:

«28. artikulua. Eragiketak ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan dokumentatu beharra.

Establezimendu iraunkor bidez errentak lortzen dituzten zergadunak behartuta egongo dira:

a) Beren jardueran egiten dituzten eragiketen faktura eta kopia egitera, erregelamendu honetan aurreikusitako eran, balio erantsiaren gaineko zergan aplikatzen duten araubidea edozein dela ere.

Aurreko paragrafoan ezarritako beharkizuna betetzat joko da balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezira bildutako jardueren garapenean egindako eragiketaren hartzaileak 16.1 artikuluan aurreikusitako ordainagiria egiten duenean.

b) Frogagiria eta kopia egitera, erregelamendu honetako 1. artikuluan jasotakoarekin bat, eragiketengatik fakturarik egin behar ez denean erregelamendu honen 3.1 artikuluko a) eta d) letretan aurreikusitakoaren arabera.»

Sei. 29. artikulua gehitzen da, eta honela dio:

«29. artikulua. Eragiketak frogagiri bidez dokumentatzeko betebeharraren erregulazioa.

Eragiketak frogagiri bidez dokumentatzeko betebeharra betetzeko, erregelamendu honen I. tituluan eragiketak faktura bidez dokumentatzeko betebeharrari buruz xedatutakoari jarraituko zaio, 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoa aparte utzita.

Eragiketak faktura bidez dokumentatzen direnean erregelamendu honen I. tituluan xedatutakoaren arabera, eragiketak frogagiri bidez dokumentatzeko betebeharra bete dela ulertuko da.»

*Azken xedapenetako bigarrena. Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzea.*

Aldaketa hauek sartzen dira zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren onetsitakoan:

Bat. 3. artikulua aldatu eta honela berridazten da:

«3. artikulua. Errolda motak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Ogasunak zerga errolda hauek izango ditu:

a) Zergapekoen errolda.

b) Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen errolda. Errolda hau zergapekoen erroldaren parte izango da.

c) Batasunaren barruko operadoreen erregistroa.

d) Balio erantsiaren gaineko zergaren hileko itzulketen erregistroa.

e) Fabrikazio zerga berezien lurralde erregistroa.

f) Aldi baterako enpresa elkarteen erregistro berezia.

Cuatro. Se añade un artículo 27 con el siguiente contenido:

«Artículo 27. Obligación de documentar las operaciones en el impuesto sobre sociedades.

Los contribuyentes de este impuesto estarán obligados, con arreglo a lo previsto en el artículo 1 de este reglamento, a expedir justificante y copia de este por las operaciones por las que no se expida factura en virtud de lo previsto en las letras a) y d) del artículo 3.1 de este reglamento.»

Cinco. Se añade un artículo 28 con el siguiente contenido:

«Artículo 28. Obligación de documentar las operaciones en el impuesto sobre la renta de no residentes.

Los contribuyentes del impuesto sobre la renta de no residentes que obtengan rentas mediante establecimiento permanente estarán obligados:

a) A expedir factura y copia de esta por las operaciones que realicen en el desarrollo de su actividad en los términos previstos en este reglamento, con independencia del régimen a que estén acogidos a efectos del impuesto sobre el valor añadido.

La obligación establecida en el párrafo anterior se entenderá cumplida mediante la expedición del recibo previsto en el artículo 16.1 por parte de la persona o entidad destinataria de la operación realizada en el desarrollo de las actividades que se encuentren acogidas al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca del impuesto sobre el valor añadido.

b) A expedir justificante y copia de este, con arreglo a lo previsto en el artículo 1 de este reglamento, por las operaciones por las que no se expida factura en virtud de lo previsto en las letras a) y d) del artículo 3.1 de este reglamento.»

Seis. Se añade un artículo 29 con el siguiente contenido:

«Artículo 29. Regulación de la obligación de documentación de las operaciones mediante justificante.

Para el cumplimiento de la obligación de documentación de las operaciones mediante justificante se estará a lo dispuesto en el título I de este reglamento para la obligación de documentación de las operaciones mediante factura, con excepción de lo dispuesto en los artículos 2 y 3.

Cuando las operaciones se documenten a través de facturas en virtud de lo dispuesto en el título I de este reglamento, se entenderá cumplida la obligación de documentación de las operaciones mediante justificante.»

*Disposición final segunda. Modificación del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales.*

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre:

Uno. Se modifica el artículo 3, que queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 3. Clases de censos.

La Hacienda Foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa dispondrá de los siguientes censos tributarios.

a) Censo de Obligados Tributarios.

b) Censo de Empresarios, Profesionales y Retenedores. Este Censo formará parte del Censo de Obligados Tributarios.

c) Registro de operadores intracomunitarios.

d) Registro de devolución mensual del Impuesto sobre el Valor Añadido.

e) Registro territorial de los Impuestos Especiales de Fabricación.

f) Registro especial de uniones temporales de empresas.

EK\CV GAO-I-2020-06951

g) TicketBAI Softwarearen Erregistroa, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, VI. kapituluan arautua.

Aurreko c) eta d) letretan aipatutako erregistroak enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldaren parte izango dira.

Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan jasotako datuetatik abiatuta, Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 119., 120. eta 121. artikuluetan aipatzen den entitateen aurkibidea eramango du Ogasun eta Finantza Departamentuak.»

Bi. 36. artikuluko 5. apartatua honela geratzen da idatzita:

